

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure bezeroekin komunikatzeko bide garrantzitsuena instagram-a izango da. Han, gure lokalari buruzko informazioa eskainiko diegu eta gure enpresako berriei buruz informatuta mantenduko dira. Gainera, haiekin kontaktuan egoteko modu oso aproposa da, enpresari buruzko edoizen zalantza badute, erantzuna momentuan edukiko dute eta. Bestalde, ur-parkeari buruzko informazioa eta sustapena dugu kontu horren bidez ahalik eta jende gehiagori heltzeko helburuarekin.



Gure web orriaren bitartez enpresaren informazioa emango dugu. Instalazioak, ordutegiak, tarifak... eskuragarri egongo dira eta baita gurekin harremanetan jartzeko aukera egongo da.

Eta parkean bertan gurekin edo edozein langilerekin hitz egiteko aukera izango da beste hirugarren komunikazio bidea. Bertan, sartu aurretiko zalantzak argitzeaz gain parkean disfrutatzen dauden bitartean sortzen zaizkien galderak eta iradokizunak guri plazaratzeko aukera izango dute.



Banaketari dagokionez, zerbitzu bat da guk saltzen duguna, eta hori disfrutatzeke gure bezeroak beraien maskotarekin instalazioa etara etorri behar dira.

Lehen esan dugun bezala, gure enpresa Leioako auzo batean kokatuko da, konkretuki Unbe auzoan, 400m²-ko lurran eraikiko dugu ur-parkea. Gure ezarpenera oinez, zein bizikletaz, autoz... etorri ahal zara. Gainera, aparkaleku bat izango dugu ibilgailuak arazorik gabe aparkatu ahal izateko.

